


ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAEn 2018

Begirada honen bidez, 2017ko abuztuko 65. panoramikaren edukia eguneratu dugu; orduko hark 2017ko urtarrilaren 1ean EAEn errolatutako atzerritarren kopurua jasotzen zuen (behin-behineko datuak). Atzerritar jatorriko biztanleak % 9,4 dira Euskadin, eta estatukoa baino txikiagoa da batezbesteko hori. Azken urtean, jarraitu egin du 2015ean hasitako joerak, gehiago baitira biztanle etorkinak. Gero eta argiago ikusten da gora-kada hori batik bat latinoamerikar jatorria duten biztanleetan oinarritzen dela. Hain zuzen, aurten, atzerritar jatorriko 9.586 biztanle gehiago bizi dira EAEn, eta horietatik % 70 latinoamerikar jatorrikoak dira.

1. Biztanleen udal-errola. Ikuspegi orokorra

1. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera EAEn eta lurralde historikoka. 1998-2018



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Erroldako behin-behineko datuen arabera, 2018ko urtarrila-ren 1ean, atzerritar jatorriko 9.586 pertsona gehiago bizi ziren EAEn; guztizko datuak kontuan hartuta, 206.175 dira, hau da, EAEko biztanleriaren % 9,4. Oraindik ere Araba da atzerritar jatorriko biztanle-portzentaje handiena duen lurral-dea (% 11,3), eta haren atzetik datoz Gipuzkoa (% 9,5) eta Bizkaia (% 8,8).

Atzerritar jatorriko biztanleria lurraldeka nola banatuta dago-en aztertuz gero (1. taula), ikusten da Bizkaia biltzen dituela oraindik ere atzerritar gehien (% 48,8), eta ondoren datoz Gipuzkoa (% 33,1) eta Araba (% 18,1). Bertako biz-tanleak ere antzera banatzen dira. Sexuaren arabera bana- ketari dagokionez, atzerritar jatorriko biztanleen erdiak baino zertxobait gehiago emakumezkoak dira (% 52,6), eta Bizkaian biltzen dira gehienak (% 53,3). Ondoren datoz Gipuzkoa (% 52,6) eta Araba (% 50,8).

1. taula. Atzerritar jatorriko biztanleria EAEn, sexuaren eta lurralde historikoen arabera. 2018

	2017			2018				Urtez urteko hazkundea (2017-2018)	
	K			K	%	Gizonak	%	Emakumeak	%
Araba	35.580	37.276	18,1	18.344	49,2	18.932	50,8	1.696	4,8
Bizkaia	95.548	100.611	48,8	46.975	46,7	53.636	53,3	5.063	5,3
Gipuzkoa	65.461	68.288	33,1	32.394	47,4	35.894	52,6	2.827	4,3
EAE	196.589	206.175	100,0	97.713	47,4	108.462	52,6	9.586	4,9
Espainia	6.180.342	6.373.063		3.085.874	48,4	3.287.189	51,6	192.721	3,1


Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Zein da EAEren egoera, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta? Estatuko atzeritar jatorriko biztanleriaren batez besteko tasa baino tasa txikiagoa duen autonomia-erkidegoetako bat da Euskadi (2. grafikoa). Madrilak eta Mediterraneo ertzeko lurraldeek dute tasarik handiena, eta haietatik urrun dago Euskadikoa, nahiz eta azken urtean pixka bat gora egin duen (% 9tik % 9,4ra pasatu da). Balio absolututan, Katalunian, Madrilan eta Valentzian izan da azken urtean atzeritar jatorriko pertsonen gorakadak handiena. Alabaina, balio erlatibotan, urtebetean atzeritar biztanleriaren gorakadak handiena Euskadik izan du berriro.

Atzeritar jatorriko biztanleek dinamika demografikoan izandako eragina positiboa izan dela ikus daiteke (2. taula). Alde horretatik, azken urteetan etengabe galtzen joan da bertako biztanleria, eta horren ondorioz, 79.812 pertsonako saldo negatiboa izan da 1998-2018 aldian. Alabaina, bertako biztanleriaren galera hori orekatu egin dute aldi horretan bertan etorritako atzeritar jatorriko biztanleak (179.841 izan dira). Horren ondorioz, guztira 100.029 biztanle gehiago bizi dira EAEn.

Atzeritar jatorriko biztanleek biztanleria osoan duten pisuari erreparatuz gero, 1998an % 1,3 izatetik 2018an % 9,4 izatera pasatu da. Hala ere, gorakada hori estatuan baino txikiagoa izan da EAEn; izan ere, estatuan, aldi horretan bertan, % 2,9tik % 13,6ra pasatu da.

2. grafikoa. Atzeritar jatorriko biztanleriaren ehunekoak, estatuko autonomia-erkidegoen arabera. 2018 eta 2017 urtearekiko aldea



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina


1998-2018 aldian urtetik urterako hazkundearen bilakaera kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu bilakaera ezberdina izan dela urtez urte.

2. taula. Bertako biztanleriaren eta atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera, eta EAEko eta Espainiako atzeritarren ehunekoak. 1998-2018

	Biztanleria				Atzerrian jaiotako biztanleen %a	
	EAE	Bertokoa	Atzerrian jaiotak	Hazkundera	EAE	Espainia
1998	2.098.628	2.072.294	26.334		1,3	2,9
1999	2.100.441	2.071.418	29.023	2.689	1,4	3,1
2000	2.098.596	2.063.453	35.143	6.120	1,7	3,6
2001	2.101.478	2.057.655	43.823	8.680	2,1	4,8
2002	2.108.281	2.052.413	55.868	12.045	2,6	6,2
2003	2.112.204	2.044.675	67.529	11.661	3,2	7,7
2004	2.115.279	2.037.073	78.206	10.677	3,7	8,6
2005	2.124.846	2.030.818	94.028	15.822	4,4	10,0
2006	2.133.684	2.025.590	108.094	14.066	5,1	10,8
2007	2.141.860	2.019.664	122.196	14.102	5,7	11,6
2008	2.157.112	2.014.628	142.484	20.288	6,6	13,1
2009	2.172.175	2.012.538	159.637	17.153	7,3	13,8
2010	2.178.339	2.010.957	167.382	7.745	7,7	14,0
2011	2.184.606	2.009.567	175.039	7.657	8,0	14,2
2012	2.193.093	2.009.321	183.772	8.733	8,4	14,3
2013	2.191.682	2.008.399	183.283	-489	8,4	14,1
2014	2.188.985	2.007.268	181.717	-1.566	8,3	13,4
2015	2.189.257	2.005.060	184.197	2.480	8,4	13,2
2016	2.189.534	2.000.938	188.596	4.399	8,6	13,2
2017	2.194.158	1.997.569	196.589	7.993	9,0	13,2
2018	2.198.657	1.992.482	206.175	9.586	9,4	13,6
Aldea 1998-2018	100.029	-79.812	179.841			

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

3. grafikoa. Atzeritar jatorriko biztanleriaren urtetik urterako hazkunde absolutua EAEn. 1998-2018



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Hala, migrazio-prozesuaren baitan, hiru fase handi egon dira EAEn:


- Lehen fasea, 2009ra artekoa, hazkunde ekonomikoaren aldiarekin bat dator; hor, atzeritar jatorriko biztanleria etengabe handitu zen.
- Bigarren fasea krisi ekonomikoaren testuinguruari lotuta dago, eta hor, atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera nabarmen moteldu zen. 2013 eta 2014 urtetan behea jo zuen, urte horietan negatiboa izan baitzen hazkundera.
- 2015ean, atzerrian jaiotako biztanleriaren hazkundeak gorakada izan zuen, eta joerak jarraitu egin du azken hiru urte hauetan. Hirugarren fasearen hasiera zetorrela ematen zuen, eta beste urte batez, badirudi berretsi egiten dela uste hori.

Nazionalitate atzeritarra dutenen eta atzerrian jaiotakoen arteko aldeak EAEn

Nazionalitate atzeritarra duten biztanleak eta atzeritar jatorrikoak alderatuz gero, datuek berresten dute, beste urtebetez, atzeritar jatorriko biztanleak gehiago direla EAEn nazionalitate atzeritarra dutenak baino. Neurri handi batean, nazionalitate atzeritarreko biztanleen artean izan diren nazionalizazio-prozesuen ondorioz gertatu da hori, aurreko panoramika batzuetan azaldu izan dugun moduan.

Hala eta guztiz ere, 4. grafikoari erreparatzen badiogu, nabarmentzekoa da krisi-garaian bi kopuruak urrundu egin zirela, nazionalizazioak ugaritu egin zirelako, baina azken urtebetean, berriz, distantzia hori laburtu egin dela pixka bat, eta horrek erakusten digu, nazionalizazioak gertatzen ari diren arren, aldi berean jendea ari dela iristen atzeritik, eta normala den bezala, jatorriko herrialdeko nazionalitatea bakarrik dute horiek.

4. grafikoa. Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen eta atzerrian jaiotako biztanleen bilakaera EAEn. 2008-2018 aldian (%)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

2. Jatorri-eremuak

Jatorrizko eremuaren arabera bilakaeraren analisiak bi gauza erakusten ditu: batetik, EAEn iristen diren migratio-fluxuak askotarikoak direla; eta, bestetik, kolektibo bakoitzak pisu desberdina duela biztanleria atzeritarraren osarean. Gaur egun EAEn bizi diren atzeritar jatorriko hamar lagunetik ia erdiak (% 47,8) Latinoamerikako herrialderen batean jaio dira; hamarretik bi (% 18,6), Europar

Batasunean; eta hamarretik bat pasatxo (% 14), Magrebeko herrialderen batean. Osaera hori ez da kasualitate baten ondorio; hein batean, EAEko egitura sozial-laboralak azaltzen du egoera: besteak beste, biztanleria zahartzen ari da gizartean, eta pertsonak zaintzearekin, etxeko lanekin eta ostalaritzarekin zerikusia duten enpleguak eskaintzen ditu.

Jatorriaren arabera bilakaeraren analisia (5. grafikoa) erakusten du EAEko atzeritar biztanleriaren osaera aldatuz joan dela urteekin, baina joera bat nagusitu dela: Latinoamerikako biztanleak dira gehienak (% 47,8), eta ondoren, EBN jaiotakoak (% 18,6) eta Magreben jaiotakoak (% 14). Jatorri-eremu nagusiek azken urteetan izandako hazkunde-bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da azken etapan (2015etik aurrera) latinoamerikar jatorria duten biztanleak ari direla gehien hazten, alde handiaz gainera. Hain zuzen, azken urtean Euskadin atzeritar jatorriko biztanleek izandako gorakadari erreparatzen badiogu (9.586 pertsona), ikusiko dugu % 70 inguru latinoamerikar jatorrikoak direla.

Bi etapa handiei erreparatuz gero (krisiaren aurrekoari eta ondorengoari), ikusten da, lehen etapan, Europa eta Latinoamerika zirela EAEko atzeritar jatorriko biztanleriaren jatorri-eremu nagusiak. 2009tik gaur egunera, atzeritar jatorriko biztanleen hazkunde nabarmen moteldu da, eta atzerriko biztanleriaren hazkunde, txikiagoa izan bada ere, bi jatorri hauetako biztanleen hazkundera oinarritu da: Magreb eremuko jatorria dutenetan (batez ere krisiko ekonomikoaren lehen urteetan, ordura arteko antzeko bolumenari eutsi baitzioten)

5. grafikoa. EAEko atzeritar jatorriko biztanleriaren osaera, eremu geografikoen arabera. 1998-2018 (%)


2018	18,6	14,0	7,7	47,8	7,0	5,0
2017	19,5	14,0	7,8	46,7	7,1	5,0
2016	20,2	14,1	7,7	45,8	7,3	4,9
2015	20,9	13,9	7,3	45,7	7,3	4,8
2014	21,8	13,4	6,9	46,1	7,1	4,8
2013	22,4	12,9	6,6	46,5	6,7	4,7
2012	22,8	13,0	6,5	46,5	6,6	4,7
2011	23,4	12,4	6,1	47,4	5,9	4,7
2010	24,5	11,9	5,8	47,8	5,2	4,7
2009	25,5	11,1	5,3	48,2	5,0	4,8
2008	26,8	10,2	4,9	48,3	4,8	5,0
2007	26,3	10,1	4,7	48,8	4,9	5,2
2006	26,0	10,3	4,9	48,1	5,1	5,6
2005	26,2	10,8	5,0	47,2	4,7	6,0
2004	26,4	11,0	5,1	46,9	4,3	6,2
2003	28,5	10,4	5,0	45,3	4,5	6,4
2002	31,1	10,3	5,0	42,4	4,7	6,7
2001	36,1	9,8	5,2	36,9	4,8	7,3
2000	40,0	9,2	5,1	32,9	5,0	7,9
1999	42,9	8,7	5,0	31,5	4,5	7,4
1998	43,0	8,6	4,8	31,0	4,3	8,2

■ Europar Batasuna ■ Magreb ■ Gainerako Afrika
■ Latinoamerika ■ Asia ■ Gainerakoak

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina


eta latinoamerikar jatorria dutenetan. Azken horiek hazten jarraitu dute 2014tik gaur egunera arte.

6. grafikoa. Eremu geografiko nagusien hazkundearen bilakaera EAEn. 1999-2003, 2004-2008, 2009-2013 eta 2014-2018 (kopuru absolutuak)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

7. grafikoa. Jatorrizko eremu nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera 1999-2018 (kopuru absolutuak)




Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Lurralde historiko batetik bestera zenbait diferentzia daude jatorri bakoitzaren pisuari dagokionez (8. grafikoa). Esate baterako, Gipuzkoan, Europar Batasuneko jatorria duten biztanleen ehunekoa handiagoa da. Araban, Magrebeko jatorria dutenen ehunekoa handiagoa da; izan ere, jatorri horretako biztanleek Bizkaian eta Gipuzkoan baino lan-aukera gehiago

dituzte Araban, nekazaritzak lurralde horretan duen pisuari esker eta, aurreko urteetan, eraikuntzak izandako gorakadari esker. Bizkaian, latinoamerikar jatorria dutenak gehiago dira, eta batez ere zaintza-lanetan, etxeko lanetan eta ostalaritzan aritzen dira.

8. grafikoa. Atzeritar jatorriko biztanleria EAEn eta lurralde historikoetan, eremu geografikoen arabera, 2018 (%)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

3. Jatorrizko herrialde nagusiak

4. taula. Jatorrizko hamar herrialde nagusiak EAEn. 1998, 2008, 2014 eta 2018 (kopuru absolutuak eta %)

		1998	%		2008	%		2014	%		2018	%
1	Frantzia	4.286	16,3	Kolonbia	14.750	18,9	Maroko	18.165	12,7	Maroko	22.695	12,5
2	Portugal	2.881	10,9	Errumania	12.515	16,0	Kolonbia	17.494	12,3	Kolonbia	19.554	10,8
3	Maroko	2.016	7,7	Bolivia	11.724	15,0	Errumania	15.370	10,8	Errumania	15.717	8,6
4	Alemania	1.608	6,1	Maroko	10.964	14,0	Bolivia	11.191	7,9	Bolivia	11.448	6,3
5	Argentina	1.471	5,6	Portugal	9.475	12,1	Ekuador	8.681	6,1	Nikaragua	8.577	4,7
6	Venezuela	1.373	5,2	Ekuador	8.349	10,7	Portugal	7.970	5,6	Ekuador	8.492	4,7
7	Kuba	1.189	4,5	Frantzia	6.668	8,5	Frantzia	6.244	4,4	Portugal	6.703	3,7
8	Erresuma Batua	989	3,8	Brasil	5.841	7,5	Brasil	5.875	4,1	Brasil	6.528	3,6
9	Mexiko	760	2,9	Argentina	5.763	7,4	Argentina	5.557	3,9	Paraguai	6.509	3,6
10	AEB	732	2,8	Venezuela	3.687	4,7	Paraguai	5.351	3,8	Venezuela	6.224	3,4
	Guztira 10	17.305	65,7	Guztira 10	89.736	63,0	Guztira 10	101.898	56,1	Guztira 10	112.447	54,5
	Gainerakoak	9.029	34,3	Gainerakoak	52.748	37,0	Gainerakoak	79.819	43,9	Gainerakoak	93.728	45,5
	Guztira	26.334	100,0	Guztira	142.484	100,0	Guztira	181.717	100,0	Guztira	206.175	100,0

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina


EAEko atzeritar jatorriko biztanleen jatorrizko hamar herrialde nagusietatik zazpi Latinoamerikakoak dira: Kolonbia, Bolivia, Nikaragua, Ekuador, Brasil, Paraguai eta Venezuela. Bi, Europar Batasunekoak: Errumania eta Portugal. Eta bat, Afrikakoa: Maroko (4. taula).

Aipatutako jatorrien artean, Marokok du pisurik handiena EAEn (22.695 pertsona). Interesgarria da nabarmentzea urteak joan ahala jatorri horrek egonkor mantendu duela atzerriko biztanle guztien artean duen pisua (% 10 inguru) –gaur egun % 11–. Kolonbia da jatorrizko bigarren herrialde nagusia, eta haren pisua ere egonkor mantendu da 2004tik (% 10 inguru). Azken urteetan, eta batez ere 2016tik aurrera, hazten ari da kolonbiar jatorriko biztanleria Euskadin –gaur

egun guztizkoaren % 9,5 da–. 2015aren amaieratik, jatorri horretako biztanleei ez zaie bisarik exijitzen, eta pentsa daiteke horrek eragina izan duela azken bizpahiru urteetan Euskadin jatorri kolonbiarreko biztanleek izandako gorakadan. Boliviarr jatorriko biztanleek ere presentzia handia dute EAEn, baina Kolonbiakoak ez bezala, haiek pixka bat beranduago hasi ziren Euskadin pisua edukitzen, hain zuzen krisi ekonomikoaren aurreko aldian. Ondoren, moteldu egin zen haien hazkundeak, eta berriz gorakada gertatu da azken urteetan.

Latinoamerikakoak dira azken urtean gehien hazi diren jatorri gehienak –Nikaragua, Kolonbia, Honduras, Venezuela, Paraguai, Peru, Brasil eta Bolivia–, eta haiekin batera, Afrikako bi –Maroko eta Senegal– (4. taula).

9. grafikoa. Jatorrizko herrialde nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera. 1999-2018 (kopuru absolutuak)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Lurraldeei eta osaerari lotutako xehetasunetan sartuta, esan behar da nahiko antzekoa izan dela lurralde bakoitzeko hazkundea, baina badaude ñabardura batzuk: Gipuzkoan, 2.827 pertsona gehiago errolatu dira, haietatik ia erdia Nikaraguan (% 21,9) eta Hondurasen (% 21,6) jaiotakoak. Honen ondoren datoz Maroko (% 10,6) eta Kolonbia (% 10,2).

Bizkaian, jatorri atzeritarreko 5.063 pertsona gehiago daude. Haien artean jatorri nagusiak Nikaragua (% 13,8), Maroko (% 13,6), Kolonbia (% 12,1) eta Venezuela (% 11,2) dira. Araban, errolatu berrien artean (1.696), kolonbiarrak (% 24,2), marokoarrak (% 19) eta venezuelarrak (% 10,6) dira nagusi.

Interesgarria da azken hogeitaz hamar urteetan hamar jatorri nagusiek EAEn zer bilakaera izan duten aipatzea (10. grafikoa).

Migrazio-prozesuan, bi fase handi egon dira EAEn:


- Lehenbiziko fasea ekonomiaren oparoaldiko garaiarekin bat dator. Gaur egun EAEn presentzia handiena duten jatorrien artean, Kolonbia eta Ekuador nabarmendu ziren, batez ere 1998tik 2004ra arte. 2004tik 2008an krisia hasi arte, berriz, errumaniar eta boliviarrak jatorrikoek izan zuten hazkunderik handiena.
- Bigarren fasea krisi ekonomikoaren testuinguruari lotuta dago, eta hor, atzerrian jaiotako biztanleen hazkunde nabarmen moteldu zen aurreko fasearekin konparatuz gero. Marokotik etorritakoak nabarmendu ziren. 2014tik hasi eta gaur egunera arte, Marokoko biztanleek etortzen jarraitzen dute, baina Nikaraguako biztanleen etorrera ere nabarmentzekoa da.

4. taula. Azken urtean gehien hazi diren jatorriak lurralde historikoka eta EAEn. 2018

Araba				Bizkaia				Gipuzkoa				EAE			
		K	%			K	%			K	%			K	%
	Guztira	1.696	100,0		Guztira	5.063	100,0		Guztira	2.827	100,0		Guztira	9.586	100,0
1	Kolonbia	411	24,2	1	Nikaragua	700	13,8	1	Nikaragua	618	21,9	1	Nikaragua	1.362	14,2
2	Maroko	322	19,0	2	Maroko	691	13,6	2	Honduras	611	21,6	2	Maroko	1.314	13,7
3	Venezuela	180	10,6	3	Kolonbia	615	12,1	3	Maroko	301	10,6	3	Kolonbia	1.314	13,7
4	Peru	101	6,0	4	Venezuela	569	11,2	4	Kolonbia	288	10,2	4	Honduras	991	10,3
5	Paraguai	77	4,5	5	Paraguai	326	6,4	5	Venezuela	225	8,0	5	Venezuela	974	10,2
6	Brasil	76	4,5	6	Honduras	326	6,4	6	Dominikar Errep.	105	3,7	6	Paraguai	443	4,6
7	Georgia	63	3,7	7	Brasil	221	4,4	7	Senegal	103	3,6	7	Peru	323	3,4
8	Honduras	54	3,2	8	Bolivia	195	3,9	8	Errumania	88	3,1	8	Brasil	296	3,1
9	Nikaragua	44	2,6	9	Peru	155	3,1	9	Ukraina	81	2,9	9	Bolivia	257	2,7
10	Nigeria	34	2,0	10	Senegal	129	2,5	10	Kuba	68	2,4	10	Senegal	257	2,7
	Gainerakoak	334	19,7		Gainerakoak	1.136	22,4		Gainerakoak	339	12,0		Gainerakoak	2.055	21,4

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

10. grafikoa. Hamar jatorri nagusien hazkunderen bilakaera EAEn. 1999-2003, 2004-2008, 2009-2013 eta 2014-2018 (kopuru absolutuak)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Ondorioak

1

Azken urtean, atzeritar jatorriko 9.586 biztanle gehiago bizi dira EAEn. Guztira 206.175 dira, EAEko biztanleriaren % 9,4 –2017an % 9 ziren–.

2

2018an sendotu egin da azken hiru urteetan ikusten hasitako egoera: atzeraldi ekonomikoaren garaian migrazio-fluxuak moteldu egin ziren, eta negatiboak ere izan ziren, baina badirudi 2015etik zikloa aldatzen ari dela, eta berriz ere fluxuak gorantz doazela. Azken urtean berretsi egin da joera hori. Atzeritar jatorriko biztanleek azken zortzi urteetan izandako hazkunderik handiena izan dute.

3

Azken urtean EAEra etorritakoen profilari dagokionez, gehienak (% 70) Latinoamerikakoak dira, zehazki, Nikaragutatik, Hondurasetik, Kolonbiatik eta Venezuelatik etorriak. Horren harira, azken urteetan nabarmentzekoa ari da izaten Venezuelako jatorria dutenen etorrera. Magrebetik datozenen kopuruak mantentzen ari dira.

4

Lurralde bakoitzeko barne-osaerari erreparatuta, esan behar da azken urtean Bizkaian gertatu dela atzeritar jatorriko biztanleen hazkunderik handiena (% 5,3), eta batez ere Nikaraguako, Marokoko, Kolonbiako eta Venezuelako jatorria dutenak ugaritu direla. Azken urtean etorritakoen erdiak herrialde horietatik etorri dira. Gipuzkoan, azken urtean erregistratutako hazkunderen % 43,5 bi jatorritako biztanleek eragin dute: Hondurasekoek eta Nikaraguakoek. Marokokoak eta Kolonbiakoak datoz ondoren. Araban, azken urtean gehien hazi diren jatorriak Kolonbia (% 24,2), Maroko eta Venezuela izan dira.

EAE 2018	206.175 atzeritar jatorriko pertsonek	EAEko biztanleriaren % 9,4
-------------	---	----------------------------------

Ziklo berriaren sendotzea		
Fluxuak gorantz		
2018	↑ 9.586 pertsonek ↑	Azken zortzi urteetako hazkunderik handiena

Etorreren profila 2018	
Latinoamerikar gehiengoa % 70	Nikaragua, Honduras, Kolonbia eta Venezuela
	Maroko

Gehien hazi diren jatorriak lurralde historikokan		
Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Nikaragua	Nikaragua	Kolonbia
Maroko	Honduras	Maroko
Kolonbia	Maroko	Venezuela
Venezuela	Kolonbia	Peru